

## Euskal Unibertsitaterako urratsak

Irakurri berriak ditut, prestuki agertu zaigun **Jakin** aldizkari gazte-helduan, euskal unibertsitatea gaitzat hartuz diharduten artikulua. Ikusmira jakingarriak plazaratu ditu, nork bere aldetik, idazle bakoitzak. Orain badugu, beraz, gal honetaz jakinmin dagoen edonorentzat, delako erakunde hori zer den, behar lukeen edo izan litekeenaz hainbat argitasun.

Gutun atalean zirrikituren bat aurkituko dutelakoan, euskal unibertsitateaz ditudan uste-asmoak agertu nahi nituzke.

Euskal unibertsitatea, asmoaz den bezainbatean, asko aurreratu da azken bospasei urte honetan. Banakak dira orain, hemen gure artean, erakunde horren beharra ukatzen dutenak. Bideak ditugu, ordea, oraindik sortu beharrak: pausoak zuzenduz, epeak markatuz, norekin-norainokoak erabakiz eta, batez ere, lehenik gure indarrak —ez desioak hutsik— neurtuz.

Hiru pauso ikusten ditut nik, arazo honetan, eman beharrekoak: pauso administratibo-legala, akademikoa eta hezkuntz-programazioa.

### 1. Lehen pausoa, administratibo-legala, zera litzateke:

- Hego Euskal Herrirako distrito bakarra, eta
- bertan gai guztietarako fakultate ofizialak eskuratzea.

Eskari hau oso eskuartean darabilte, gaurregun, zahar eta gazteek, maisu-ikasleek, panfletogile nahiz agintaritzakoek. Orain lortzeko

eskakizuna dirudi, eta horretan guztiok batera saiatu behar genuke. azken helburuetan denok bat ez etorri arren.

2. Bigarren pausoa, «akademiko» izenaz bataiatu dudana, unibertsitatean bertan eman behar litzateke.

Alde batetik, geure kolektibitateaz orain dugun baino ezagupen osatuagoa lortzeko, geure nortasunaz jabetu eta hari gerorabideak zabaltzeko, asignatura espezifikokoak eratu beharrean gaude: euskal linguistikaz, literaturaz, historiaz, geografiako... katedrak sortzeko ordua litzateke.

Eta bestetik, ohizko asignaturak gure gizartearen beharretara aplikatu beharrak daude, besteek ere egin ohi duten moduan: Soziologia, Deretxoa, Ekonomia, Teknologia, Hizkuntza irakaspideak eta abarrekoak, gure egungo egoera eta biharko helburuak kontutan hartuz programatu beharrak daude.

Bigarren pauso honek, partez bederen, aurretik lehenengo pausoa eskatzen du: Errektoretza mailako eraberritze lanei dagozkien puntuetan batik bat.

Irakaslegoa, ordea, oraindik sortzen, biltzen eta trebatzen hasi beharra dago.

3. Hirugarren pausoa, hezkuntz-programaziozkoa izenda daiteke.

Euskarak, euskaldunon biharko hizkuntza izango bada, ate guztiak zabalik beharko ditu: administrazioa, komunikabideak eta hezkuntza; unibertsitatea ere bai, beraz.

Pauso hau ezin da berehala burutu: Irakasleak falta dira, beren asignaturak normaltasun osoz euskaraz esplikatuko dituztenak; liburuak falta dira, hain noraezekoa den oinigitura bibliografikoa osatuko dutenak; hizkuntza erabat normaldu eta bizi ditugun giro-bizibide berrien beharretara egokitu beharra dago, eta —batez ere— ikasle euskaldunak behar ditugu, hitzez eta lumaz erdaraz bezain trebeak. Ikastoletan oratzen ari den gazteri zati hori izango dugu, dudarik gabe, pausoak ematen hasteko oinharrietariko bat; hori ez da, ordea, aski, Ghetto batetara iritsiko ez bagara, euskal gizarte osorako hezkuntz programazioa dago eraldatu beharra, haurtzaindegi mallatik goiko puntarainokoa; euskararen ofizialkidetasuna, bestela, azal hutsa genuke.

Pauso hau, begibistan dagoenez, ez da dekretu bidez konpontzekoa: herri baten nahiak, ahalmek eta kontzientziak erabaki beharra dauka, hurrengo urteotan, euskararekin zer egin: hartu ala —betirakoz— utzi. Erabaki politiko baten ondorioz bakarrik ikusten diot, beraz, irtenbidea. Honek ez du esan nahi, ordea, ez gero inola ere, erabaki horren zain egon behar dugunik. Goian aipaturiko oinigitura osoa (irakaslego euskalduna, textugintza, hizkuntza standartzatua, ikaslego alfabetatua...) orain bertan prestatu beharra dago. Badu horretan zeregina franko Udako Euskal Unibertsitateak.

**Mikel Zalbide**